

dekoa», Madril- «Hiriko paisaian ezer ez dator bat»-, Paris- «Parisen erdiguneko txoko bakoitza Paris osoa da»-, Munich- «Europa erdialdeko hiri hauetatik, haien itxura arrazoizkoak erakartzen nau: nola irten den garaile arrazoa haien ordenamenduan eta trazatuan»-, eta besterena.

Ikusten zuenari buruz idazten zuela esaten zuen aldiro, eta Espainiako bizitza politikoaren eta moralaren eboluzioa modu garraztean kontatu zuen bere lanetan. Ez zituen, oro har, epelkeriak batera maite -«Gero eta okerrago daramat sozialdemokraziaren aho biko hizkera hori. Progresia ondo-pentsatu hori»-.

Gainontzean, loezinari aurre egin, asko erre, gertukoekin jatorduka egin, etxean gotortu, alcohola edan -«Ajea. Eta berriz ere antsietatea, sentimenduen nahasmena, berriz ere ezin jakin non hasten den desira eta non mespretxua»-, ahal duen guztia irakurri eta berrirakurri -«Hori da egitea ukatzen ez zaidan gauza bakarra. Irakurri egiten dut, ez pentsatzearen, ez idaztearen. Idazteak ni ezgai eta beldurtu batera nakar»- eta filmak ikusten eta ikusitakoak berrikusten dituen norbait aurkezten dute egunerokoek, egarri handiz bizi dena -«*Los sobornos* ikusi dut, berriz. [...] Carmen Martin Gaiterekin ikusi nuen estreinakoz, duela dozena bat urte: izugarri gustatu zitzaigun»-.

### Kraka garbitzea

Gaite bezala, hurbileko izan zituena zenbait idazle eta kultur munduko jende, baina, oro har, zirkulu literarioetatik aparte egin zuen bidea Chirbesek; idatzi nahi duenarentzat komenigarriagoa delakoa. Egile bat aspergarri iruditzen bazitzaion, bestea inozoa, halakoa harroputza, guztien gaineko kritikak jasota utzi zituen koadernoetan. Baina, edonola ere, idazleren baten kontra egitekotan, Rafael Chirbesen kontra egin zuen: «Zer kontaturik ez daukan ergel hori, bere porrota geroari komunikatzen tematua».

Irizten zion garaian garaiko zokorik ainubeenetan aztarrika egitea zela idazle on baten egitekoa, eta ez zuen barkatzen «izendatu» beharrean «inguratu» egiten duen lengoia, bertan atsegin hartzen geratzen dena. Idazlearen egiazko egitekoa erretorikan «zulo egitea» zela apuntatu zuen, hala, hutsarteetako batean, bere buruari gogorarazi nahiko balio bezala. «Horixe da idazlearen lantegia: hizkuntzari erantsen zaion kraka garbitzea».

## Teknologiaren harago zer

Irati Majuelo

**H**ologramak, sexukide birtualak, Oftalbe-taurrekoak... etorkizun hurbil batean.

Hori da Katixa Agirrek argitaratu berri duen eleberriaren osatu duen unibertsoa. Zer den birtuala eta zer errealitatea zaila da bereizten fikzio espekulatibo honetan, eta lausotasun horretan oinarritzen da, hain justuki, liburu honen gako nagusietako bat.

Izenburutik beretik adierazten da errealitatearen arteko gurutzaketaren ideia, eta istorioan zehar errepikatzen da errealitatearen mugak auzitan jartzearena. Ez dira horiek soilik, ordea, eleberriaren elkarren artean nahasten diren elementuak: iragana eta etorkizuna, generoari buruzko hausnarketak, amatasunari eta aitatasunari buruzko usteak, errefuxiatuak, hezkuntza, turis-

moa; elkar txirikordatu eta fusio-natzen dira. Mundu hibridoa da, beraz, *Berriz zentauro*-n agertzen dena, hori testuaren forman bertan islatu ez arren, eleberriaren generoari heltzen baitio zuzenean. hibridazioetan sartu gabe.

Nahiko argi geratzen da hasieratik: istorioa guk ezagutzen dugun munduan kokaturik dago, gure garaitik ez oso urrun, gaur



### 'Berriz zentauro'

**Idazlea:** Katixa Agirre.  
**Argitaletxea:** Elkar.

## Jolas liburuak



### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**L**iburu parte hartzaileak berriz ere boladan omen datoz. Badira hiruzpalau hamarkada gure artean izan zuten lehen arrakasta bolada hartatik, eta garaia haieran haur ginenok gogoan ditugu oraindik.

«Aukeratu zure abentura» jartzen du liburu honen azalean. Izan ere, istorioak zein norabide hartuko duen, eta nola amaituko den, irakurlearen esku uzten duela hitzematzen duen liburu mota bat da, atal bakoitzaren amaieran istorioarekin jarraitzeko aukera desberdinak proposatuta. Era berean, nobela hauen ezaugarria da narratzaileek bigarren pertsonan hitz egiten dutela, irakurlea abenturako protagonista den sentimena pizteko-edo.

Esku artean dugun honek udaleku misterioz baten kokatzen

du narrazioa, udaleku sekretu bat, narratzaileak protagonistari lehen atalean argitzen dionez. Zailtasunak gehitzeko asmoarekin, gainera, une jakin batzuetan, zein orrialdera joan behar den jakiteko *buruketa* modukoak proposatzen dira.

Irakurketari dagokionez, etsipena sentitu dut, ematen diren aukera guztiak bide/narrazio bakkerra eramaten dutelako, eta hartatik urruntzeak heriotza dakarrelako.



### '7G udalekuak'

**Idazlea:** Nerea Loiola Pikaza.  
**Argitaletxea:** Erein.

egungo erreferentzia ugari bere horretan irauten baitute. Hau da, eleberriari heldu diren pertsonaia gaur egunean ume liriteke, gutxi gorabehera. Hori da Paula protagonistaren kasua, zeinak lan egiten duen errealitate birtualeko enpresarentzat bidaia-tzen duen Parisera, Mary Wollstonecrafti buruzko informazioa biltzera. Etorkizun hurbil horretan teknologiak berebiziko garrantzia du, eguneroko edozein ekintza haren bidez gauzatzeko aukera izaterainokoa. Hala ere, errealitate birtuala tartean jarri arren, gizakiaren oinarriko pul-tsoiek antzerakoak izaten jarraitzen dute: sexua, jakin-mina, ugalketa, hezkuntza.

Hori dela eta, teknologiaren garapenez gain, gutxi dira Agirrek planteatzen duen gizartearen aldatzen diren auziak, eta, alde horretatik, ausardia puntu bat du faltan eleberriak. Zientzia fikzioaren posibilitateetan arakatzeko, mundu berriak irudikatze-ko aukera baliatu ez balu bezala. Adibide bat jartzearen, genero zurrunen arteko transgresioa agertzen bada ere (emakumezko ugariak gizonezko abatarrek darabiltzate errealitate birtualean),

oso modu binaristan planteatzen da auzia, feminitate eta maskulinitate klasikoak gorpuztuz. Hala ez denean, etorkizun modura planteatzen diren gazteei dago-kienez, guztiak dira androgino, generoa bernaldi batetik bestera abolitu balitz bezala; gatazkari edo lokatzetan sartu gabe.

Esan bezala, Mary Wollstonecraft da eleberriko gako nagusietako bat, Paularen *doppelgänger* gisara funtzionatzen duena. Laneko aitzakiaz gain, tarteka agertzen zaion bidelagun intimoa da, kontraesanak eta bizi-hautuak auzitan jarri eta protagonista es-tutzen duena. Biak gurutzatzen dituzte feminismoaren eta generoaren inguruko hausnarketek (Paulari bere abatar maskulinoaren erabilera problematizatuz), 1789ko iraultzaaren nondik norakoek (Paula Max Doxekin elkartu eta anti-unibertsitatearekiko dituen jarrerak berrikusiz), amatasunaren dilemek, maitasun-harremanak dituzten gora-beherek... Alabaina, hori guztia etorkizunera jauzi egin gabe kon-ta zitekeelako sentsazioa gertatzen da, oro har, nahiz eta eleberriaren proposamena bera origi-nala izan.

## Apokalipsia



### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**T**amaina handiko album ilustratua da (31x22 cm), azal gogorretan bildua eta kartoi mehezko orriak dituena.

Azkenaldi honetan puri-purrian dagoen giro apokaliptikoarekin bat eginez, *Fin* izeneko bar-kuaren azken itsasaldia kontatzen zaigu.

Arrantza xede berezia du barkuak, «munduko itsaso guztien zentrorra» joango baita, «munduko ur guztiaren iturria» dagoen lekura; baldekadaz baldekada «ura jaso eta gordetzen dute bodegan», munduko ozeanoak lehortu arte.

Testu oso gutxi du, ilustrazioaren gainean ezarria, gutxien mola-estatu duen lekua hartuz, bartzuetan lortzen ez dena, hainbatetan kalte egiten baitio irudiari. Esaldi laburrak dira, eskematiko-

ak, aditza aurreratuta eta galde-gaia atzeratuta dutenak, karga simbolikoa erantsi nahian hitzei, tonu dramatikoarekin.

Ilustrazioak handiak dira, orri-bikoak hartzen dituzte, plano orokorrak eta hurbilekoak txandakatu. Istorioak duen dramatismoari jarraiki, kolore ilunak nagusitzen dira, belzkarak, eta baita gorri eta horail zikinak ere. Berdea da kontrasterako kolorea.

Pertsonaien bisaikak arrotzak egin zaizkit, gainerako irudiekien ezkongaitzak.



### 'Fin barkua'

**Idazlea:** Andoni Olaetxea.  
**Ilustratzailea:** Maite Caballero.  
**Argitaletxea:** Erein.